

**FORU GOBERNU KONTSEILUAREN 3/2022 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO
DEKRETUA, MARTXOAREN 15EKOA. ZERBITZU DIGITAL JAKINEN GAINEKO ZERGA
ONESTEA**

(ALHAO, 35. zk., 2022-3-23)

(Arabako Batzar Nagusiek 2022ko martxoaren 30eko 6/2022
Foru Arauaren bidez baliozkotu zuten)

Ekonomia Itunaren aldaketa berriak zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga ituntzea ekarri du. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 ter artikulua jasotzen du zerga hori, eta bertan xedatzen denez, tributu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren urriaren 15eko 4/2020 Legeak sortu zuen zerga hori zeharkako zerga bat da, zenbait zerbitzu digitalen prestazioak zergapetzen dituena. Zehazki, erabiltzaileek parte hartzen duten zerbitzu digitalak dira, eta horrek ekarpena egiten dio zerbitzuak ematen dituen enpresaren balioa sortzeko prozesuari. Zerbitzu horien bidez, enpresak erabiltzaileen ekarpen horiek monetizatzen ditu.

Zerga berri hori Arabako Lurralde Historikoko zerga ordenamenduan txertatu behar denez gero, zerga premiazko araugintzako dekretu hau eman behar da.

Aztertu da Zerga Araudiko Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horren ondorioz, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak presazko arrazoiak direla eta Foru Aldundiari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Izaera eta xedea.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga zeharkako zerga bat da, eta zerga aplikatzen den lurraldeko erabiltzaileen esku hartzea duten zenbait zerbitzu digitalen prestazioak zergapetzen ditu, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honetan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

2. artikulua. Araudi aplikagarria.

1. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 ter artikuluan xedatutakoaren esparruan, zerga premiazko araugintzako dekretu honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik eskatuko da zerga.

2. Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan ezarritakoak ez du ezertan eragozten barne ordenamenduan sartu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan ezarritakoa.

3. artikulua. [\(1\)](#) Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena.

1. Zergadunek, helbide fiskala edozein tokitan dutela ere, Arabako Foru Aldundiari ordainduko dizkiote zergak, Arabako Lurralde Historikoan zergari lotuta emandako zerbitzu digitalen bolumenaren proportzioan.

Proportzio hori ehunekotan emango da, bi dezimalekin biribilduta, eta Araban emandako zerbitzuen bidez lortutako diru sarrerek Espainiako lurraldean guztira lortutako diru-sarrerei dagokienez duten proportzioaren arabera zehaztuko da. Ondorio horietarako, diru sarreren zenbatekotik kanpo utziko da balio erantsiaren gaineko zerga, eta baita pareko beste zerga batzuk ere.

2. Zerbitzu digitalen prestazioak Araban egin direla ulertuko da, erabiltzaileak toki horretan badaude, eta zerga premiazko araugintzako dekretu honetan jasotako kokapen arauen arabera zehaztuta.

3. [\(1\)](#) Arabako Foru Aldundiaren organoei dagokie zerga ikuskatzea, baldin eta zergadunaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago, eragindako gainerako zerga administrazioen elkarlana baztertu gabe, eta ondorioak izango ditu administrazio eskudun guztien aurrean, haiei dagokien zerga proportzioa barne.

Ikuskapen jarduketaren ondorioz hainbat administrazioi zorren bat ordaindu edo kopururen bat itzularazi behar zaiela jakiten bada, Arabako zerga administrazioak kobratu edo ordainduko du zor edo itzultze hori, eta administrazioek gero emango dizkiote konpentsazioak elkarri, beharrezkoa bada.

Arabako Foru Aldundiaren organo ikuskatzaileek beren jarduketan emaitzen berri emango diete eragindako gainerako administrazioei.

Arabako Foru Aldundiak egiaztapenetan ezarritako proportzioak ondorioak ekarriko ditu zergadunarentzat, likidatutako betebeharreri dagokienez, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren administrazio eskudunen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

1. Eduki digitalak: formatu digitalean emandako datuak, hala nola ordenagailu programak, aplikazioak, musika, bideoak, testuak, jokoak eta beste edozein programa informatiko, interfaze digitalaren beraren datu adierazgarriez bestelakoak.
2. Interneteko Protokoloaren helbidea (IP): interkonektatutako gailuei esleitzen zaien kodea, Internet bidez komunikatu ahal izateko.
3. Taldea: entitate batek Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera beste erakunde baten edo batzuen kontrola duen edo izan dezakeen erakunde multzoa, egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra alde batera utzita.
4. Interfaze digitala: komunikazio digitala ahalbidetzen duen edozein programa, webguneak edo horien zatiak barne, edo aplikazioa, aplikazio mugikorak barne, edo erabiltzaileek erabil dezaketen beste edozein bitarteko.
5. Zerbitzu digitalak: halakotzat joko dira soil-soilik lineako publizitatekoak, lineako bitartekaritza-zerbitzuak eta datuen transmisioak.
6. Lineako publizitate zerbitzuak: interfaze digital batean, norberarena edo hirugarrenena, interfaze horren erabiltzaileei zuzendutako publizitatea sartzea. Publizitatea sartzen duen erakundea interfaze digitalaren jabea ez denean, publizitate zerbitzuaren hornitzaile hartuko da erakunde hori, eta ez interfazearen jabea.
7. Lineako bitartekaritza zerbitzuak: erabiltzaileen eskura interfaze digital multifazetikoko bat jartzea (hainbat erabiltzaileekin aldi berean jarduteko aukera ematen duena), erabiltzaileen artean zuzenean ondasun emateak edo azpiko zerbitzu prestazioak egitea errazteko, edo beste erabiltzaile batzuk aurkitzea eta haiekin elkarreragitea ahalbidetzeko.
8. Datuak transmititzeko zerbitzuak: erabiltzaileei buruz bildutako datuak kontraprestazio bidez transmititzekoak, salmentaren edo lagapenaren bidezkoak barne, azken haiek interfaze digitaletan egindako jarduerak sortutakoak badira.
9. Erabiltzailea: interfaze digital bat erabiltzen duen edozein pertsona edo erakunde.
10. Publizitate zuzendua: produktu, zerbitzu edo marka bat sustatzeko komunikazio digital komertzialeko edozein modu, interfaze digital baten erabiltzaileei zuzendua eta erabiltzaileei horiei jasotako datuetan oinarritzen dena. Publizitate guztia «publizitate zuzendua» dela ulertuko da, kontrakoa frogatu ezean.
11. Finantza zerbitzu arautuak: finantza erakunde arautu batek baimena izanda eman ditzakeen finantza zerbitzuak.
12. Finantza erakunde arautua: edozein arau nazional edo Europar Batasunak finantza zerbitzuak arautzeko hartu duen edozein harmonizazio neurri aplikatuz, baimena edo erregistroa edo ikuskapena behar duen finantza zerbitzuen emailea, barnean direla baina Europar Batasunak eman ez duen baina Europar Batasunaren egintza juridiko baten arabera Europar Batasunaren neurrien baliokidetzat jotzen den araudi baten arabera ikuskatu behar diren finantza zerbitzuen emaileak.
13. [\(1\)](#) Zergaren aplikazio lurraldea: Espainiako lurraldea.

5. artikulua. Zerga egitatea.

Zergari lotuta egongo dira zergadunek zergaren aplikazio lurraldean emandako zerbitzu digitalak.

6. artikulua. Zergapean ez dauden kasuak.

Honako hauek ez dira egongo zergapean:

- a) ondasunen edo zerbitzuen hornitzailearen webgunearen bidez linean egindako ondasun salmentak edo zerbitzuen kontratazioak, hornitzaileak bitartekari gisa jarduten ez duenean.
- b) lineako bitartekaritza zerbitzu baten esparruan erabiltzaileen artean egiten diren eta azpian dauden ondasun emate edo zerbitzuak;
- c) linean ematen diren bitartekaritza zerbitzuak, interfaze digital bat eskura jartzen duen entitateak ematen dituen zerbitzu horien helburu bakarra edo nagusia bada erabiltzaileei eduki digitalak ematea edo komunikazio zerbitzuak edo ordainketa zerbitzuak ematea.
- d) finantza erakunde arautu batek araututako finantza zerbitzuak.
- e) finantza erakunde arautu batek araututako finantza zerbitzuak.
- f) zuzenean edo zeharka ehuneko 100eko partaidetza duen talde bateko entitateen artean ematen diren zerbitzu digitalak.

7. artikulua. Zerbitzu digitalak emateko lekua.

1. Zerbitzu digitalak zergaren aplikazio lurraldean emandakotzat joko dira erabiltzailearen bat lurralde eremu horretan dagoenean, alde batera utzita erabiltzaileak zerbitzutik eratorritako diru sarrerak sortzen laguntzen duen kontraprestazioen bat ordaindu duen.

2. Erabiltzailea zerga aplikatzen den lurraldean dagoela ulertuko da kasu hauetan:

- a) Lineako publizitate zerbitzuen kasuan, publizitatea erabiltzaile horren gailuan agertzen den unean gailua lurralde eremu horretan dagoenean
- b) Azpian dauden zerbitzuak edo ondasunak erabiltzaileen artean zuzenean ematea ahalbidetzen den lineako bitartekaritza zerbitzuen kasuan, erabiltzaileak lurralde eremu horretan dagoen gailu baten interfaze digitalaren bidez amaitzen duenean azpian dagoen eragiketa.

Lineako gainerako bitartekaritza zerbitzuetan, erabiltzaileari interfaze digitalean sartzeko aukera ematen dion kontua irekitzeko unean kontu hori lurralde eremu horretan dagoen gailu bat erabiliz ireki denean.

c) Datuak transmititzeko zerbitzuen kasuan, erabiltzaile batek interfaze digital baten bidez sortu dituzenean transmititutako datuak eta datuok sortzeko unean lurralde eremu horretan dagoen gailu baten bidez sartu denean bertara.

3. Zerbitzu digitalak non eman diren zehazteko, ez dira kontuan hartuko:

a) Lineako bitartekaritza zerbitzuen kasuetan, azpian dauden zerbitzuak edo ondasunak ematen edo entregatzen diren tokia, halako zerbitzu edo ondasun ematerik badago.

b) Zerbitzu digital batekin lotutako edozein ordainketa egiten den tokia.

4. Artikulu honen ondorioetarako, uste izango da erabiltzaile baten gailu jakin bat bere IP helbidearen arabera zehazten den lekuan dagoela, salbu eta leku hori beste bat dela ondoriozta badaiteke zuzenbidean onargarriak diren beste frogabide batzuk erabiliz, zehazki, beste geolokalizazio tresna batzuk erabiliz.

5. Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau aplikatzeko asmoz erabiltzaileengandik bil daitezkeen datuak zerga aplikatzen den lurraldean erabiltzaileen gailuen kokapena zein den jakitea ahalbidetzen duten datuetara mugatzen dira.

8. artikulua. Zergadunak.

1. Zerga honen zergadunak dira Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 35.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona juridikoak eta erakundeak, baldin eta likidazio aldiaren lehen egunean honako bi atalase hauek gainditzen badituzte:

a) aurreko urte naturaleko negozio zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurotik gorakoa izatea eta

b) zergari lotutako zerbitzu digitalen prestazioen ondoriozko diru sarrerren zenbateko osoa (aurreko urte naturalari dagozkion diru sarrerena) 3 milioi eurotik gorakoa izatea, 10. artikuluan aurreikusitako arauak aplikatu ondoren.

Jarduera aurreko urtean hasi bada, aurreko zenbatekoak urtebeteko aldira estrapolatuko dira.

2. 1. apartatuan aipatzen diren zenbatekoak, euroa ez den beste dibisa batean baldin badaude, eurotara bihurtuko dira, dena delako urte naturaleko azken Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako truke tasa aplikatuta.

3. Talde bateko kide diren erakundeen kasuan, 1. paragrafoan aipatzen diren atalaseen zenbatekoak talde osoarenak izango dira. Ondore horietarako:

a) 1. apartatuko a) letrako atalase hori Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentarauan agertzen den bera izango da, eta Zerga Oinarriaren Higadurari eta Mozkinen Lekualdaketei (ingelesezko siglen bidez BEPS deitutakoei) buruz ELGAK eta G20koak egindako proiektuaren 13. ekintza aplikatuz onartutako nazioarteko arau baliokideetan agertzen den bera (zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen du, fiskalitatearen arloko nahitaezko informazio truke automatikoari dagokionez, eta herrialdekako txostenari buruzko adierazpena ezartzen du, eta 13. ekintza, berriz, transferentzia-prezioei eta herrialdekako txostenari buruzko dokumentazioari buruzkoa da).

b) 1. apartatuko b) letrako atalasea zehazteko, ez dira ezabatuko taldeko entitateen artean emandako eta zerga honi lotutako zerbitzu digitalak.

Taldeak atalase horiek gainditzten baditu, taldea osatzen duten erakunde guztiak hartuko dira zergaduntzat, zerga egitatea gauzatzen duten neurrian, apartatu horretako b) letran aipatzen diren eta dagozkien diru sarrerren zenbatekoa edozein dela ere.

9. artikulua. Sortzapena.

Zergapetutako eragiketak egiten, betearazten edo gauzatzen direnean sortuko da zerga.

Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zergapetuta dauden eragiketetan ordainketak egin behar badira zerga egitatea egin aurretik, prezioa erabat edo partzialki kobratzen den unean sortuko da zerga, kobratutako zenbatekoen arabera.

10. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zergaren zerga oinarria hau izango da: zergadunak zergari lotuta dauden eta zergaren lurraldean eman diren zerbitzu digitalen prestazio bakoitzeko lortu dituen diru sarrerren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga edo beste zerga baliokide batzuk kenduta, hala badagokio.

Talde bereko erakundeen artean ematen diren zerbitzu digitaletan, zerga oinarria haien merkatu balio normala izango da.

2. Zerga oinarria zehazteko, arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Lineako publizitate zerbitzuen kasuan, hauen arteko proportzioa aplikatuko zaie lortutako guztizko diru sarrerei: zerga aplikatzen den lurraldean dauden gailuetan publizitatea agertzen den aldi kopurua, batetik, eta publizitate hori edozein gailutan —gailuok edozein lekutan daudela ere— agertzen den aldi kopurua, bestetik.

b) Azpian dauden zerbitzuak edo ondasunak erabiltzaileen artean zuzenean ematea edo entregatzea ahalbidetzen den lineako bitartekaritza zerbitzuen kasuan, hauen arteko proportzioa aplikatuko zaie lortutako guztizko diru sarrerei: zerga aplikatzen den lurraldean dauden erabiltzaileen kopurua, batetik, eta zerbitzu horretan edozein lekutan daudela ere esku hartzen duten erabiltzaileen guztizko kopurua, bestetik.

Gainerako bitartekaritza zerbitzuen zerga oinarria zehazteko, erabiltzaileengandik zuzenean eratorritako diru sarrerren guztizko zenbatekoa kontuan hartuko da, erabilitako interfaze digitalera sartzeko aukera ematen duten kontuak zerga aplikatzen den lurraldean zegoen gailu bat erabiliz ireki direnean.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, berdin da erabilitako kontua noiz ireki den.

c) Datuak transmititzeko zerbitzuen kasuan, hauen arteko proportzioa aplikatuko zaie lortutako guztizko diru sarrerei: datu horiek sortu dituzten eta zergaren aplikazio lurraldean dauden erabiltzaileen kopurua, batetik, eta edozein lekutan daudela ere datu horiek sortu dituzten erabiltzaileen guztizko kopurua, bestetik.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, berdin da noiz bildu diren transmititutako datuak.

3. Likidazio aldiaren zerga oinarriaren zenbatekoa zein den jakiten ez bada, zergadunak behin behinean finkatu beharko du, zerbitzu digitalen prestazio horien ondoriozko diru sarrerak sortuko diren aldi osoa kontuan hartuko duten irizpide funtsatuak aplikatuz. Zenbateko hori, jakiten denean, erregularizatu beharko da, likidazio aldiari dagokion autolikidazioaren bidez

Erregularizazioa eragiketari dagokion zergaren sortzapen dataren ondorengo lau urteko epean egin beharko da beranduenez

4. Zerga oinarria oker zehaztu bada, zergadunak zuzendu egin beharko du, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera.

5. Zerga oinarria zuzeneko zenbatespeneko metodoaren bidez zehaztuko da, zerga oinarrien zeharkako zenbatespeneko metodoaren arauetan ezarritako salbuespenak soilik kontuan hartuta.

11. artikulua. Zerga tasa

Ehuneko 3koa izango da eskatzen den zerga tasa.

12. artikulua. Kuota osoa.

Zerga oinarriari zerga tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa.

13. artikulua. Betebehar formalak

1. Zergadunek honako betebehar hauek izango dituzte, arau bidez zehaztutako betekizun, muga eta baldintzekin:

a) Zergari loturik egotea dakarten jarduerak hasteari, aldatzeari eta uzteari buruzko aitorpenak aurkeztea.

b) Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea eta ezartzen diren kasuetan jakinaraztea eta egiaztatzea.

c) Arau bidez ezartzen diren erregistroak eramatea.

d) Aldizka edo Administrazioak eskatzen dienean, beren zerbitzu digitalei buruzko informazioa ematea.

e) Ordezkarri bat izendatzea, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honetan ezarritako betebeharrak betetzeko, Europar Batasunean finkatu gabeko zergadunak direnean.

Zergadunak, edo haren ordezkariak, izendapenaren berri eman behar dio zerga administrazioari, behar bezala egiaztatuta, zergari lotutako eragiketen aitorpena egiteko epea amaitu baino lehen.

f) Zergari lotutako eragiketen frogagiriak eta egiaztagirak gordetzea Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak jarritako preskripzio epean. Zehazki,

zergapetutako zerbitzu digitala eman den lekua identifikatzeko balio duten frogabideak gorde beharko dituzte.

g) (1) Zerga administrazioak zergadunaren zerga egoera kontrolatzeko hala eskatzen duenean, euskarara edo gaztelaniara itzultzea zerbitzu digitalei dagozkien fakturak, kontratuak edo egiaztagirak, baldin eta zerbitzuok zergaren aplikazio lurraldean emandakotzat jotzen badira.

h) Erabiltzaileen gailuak zerga aplikatzen den lurraldean non dauden zehazteko sistemak, mekanismoak edo akordioak ezartzea.

2. Era berean, zerga araudian ezarritako beste edozein betebeharrak formal ere bete beharko dute.

14. artikulua. Zergaren kudeaketa.

1. Likidazio aldia hiruhileko naturalarekin bat etorriko da.

Ogasun Ministerioko titularraren aginduaren bidez ezarritako tokian, moduan eta epeetan aurkeztu beharko dituzte dagozkien autoliquidazioak eta ordaindu beharko dute zerga zorra zergadunek.

2. Zergadunek zergaren autoliquidazioak aurkeztuko dizkiete Arabako Foru Aldundiari, zerga ordainarazteko eskumena duenean. Autoliquidazio horietan, administrazioetako bakoitzari dagokion kuota adieraziko da.

Bidezkoak diren itzulketak Arabako Foru Aldundiak egingo ditu, dagokion zenbatekoan.

15. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Artikulu honetan aurreikusitako xedapen bereziak gorabehera, zerga honi dagozkion arau hausteak Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta oro har aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

2. Zerga honen ondorioetarako, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 13.1.h) artikuluan aipatzen den betebeharrak ez betetzea zerga arloko arau haustea da.

Zehapena aurreko urte naturaleko negozio zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 0,5eko diruzko isuna izango da, Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta gutxienez 15.000 eurokoa eta gehienez 400.000 eurokoa, aurreko paragrafoan aipatutako ez-betetzea gertatu den urte natural bakoitzeko.

3. Artikulu honetan ezarritako arau hausteagatik sartu beharreko zehapenaren zenbatekoa murriztu ahal izango da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean 192. artikuluan xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENAK.

Lehenengoa. [\(1\)](#) Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2021eko urtarrilaren 16tik aurrera sortuko ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe ekonomia itunaren hamargarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

OHARRAK

(1) 6/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 12koa.

(ALHAO, 45. zk., 22-04-20koa)